

*Berdintasun politketan sexu-
eta genero- aniztasuna txertatu
nahi denean sortzen diren
erronkez, eztabaidez
eta praktikez hausnartzeko
lan-saio estrategikoaren
sistematizazioa*

[2017ko azaroa]





AURKIBIDEA

1. Sarrera

2. Gasteizko IV. Berdintasun Planaren (2018-2021) eta Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoaren inguruko aurkezpenen laburpena

3. Eztatbaida nagusien laburpena:

Analisia eta hausnarketak

Praktika onak eta proposamenak

4. Tokiko lehentasunak

1. Sarrera

[Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua](#) buru-belarri ari da bi dokumentu prestatzen: Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa eta Gasteizko IV. Genero Berdintasun Plana (2018-2021). Bi prozesu horiek lantzearekin batera, sexu- eta genero-aniztasuna transbertsalizatu nahi ditu, eta ezartzen dituen Berdintasun politiketan txertatu, dena ondo neurtuz eta modu estrategikoan.

Horren haritik, Berdintasunerako Zerbitzuak [hausnarketa lan-saio bat](#) antolatu zuen 2017ko azaroaren 3an, Montehermoso kultur zentroan, 10:00etatik 14:30era bitartean: hain justu ere, lan-saio hartan landutako eztabaidak eta proposamenak bildu ditugu dokumentu honetan. Helburua, hauxe: aipatu prozesuak batzea –LGTBI herritarren diagnostikoa eta Genero Berdintasunaren IV. Plana–, eta aztertzea zernolako erronkak, eztabaidak eta praktikak hartu behar diren kontuan genero- eta sexu-aniztasuna Berdintasun politika publikoetan txertatu nahi baditugu.

Lan-saioan parte hartu zuten hizlariak adituak dira genero-gaietan; batzuk teknikariak dira eta instituzioen arloan dabilta, beste batzuk, berriz, akademian eta aktibismoan ari dira. Era berean, beste hainbat arlotako jendea ere etorri da lan-saioa, aditzera: udaleko sail estrategikoetako langileak, Berdintasunerako Zerbitzuaren kontratupeko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresak, eta hiriko kolektibo feministak eta LGTBI-ak. Bertaratu direnek tartea izan dute ekarpenak egiteko eta hizlarietara galderak egiteko. Publikoaren ekarpenak ez ditugu aparteko atal batean bildu; aitzitik, testuan bertan txertatu ditugu, hainbat tokitan.

Idoia Eizmendi Berdintasun teknikari, kazetari eta aktibista feministak dinamizatu eta sistematizatu du lan-saioa.

Hizlariak

- **Fefa Vila**, Soziologia eta genero-harremanak ikertzen eta irakasten ditu. Aktibista queer-lesbiar-feminista.

- **Gerard Coll-Planas**, Soziologiako doktorea eta Vic-eko Unibertsitateko irakasle titularra. Hainbat ikerketa eta argitalpen egin ditu.

- **Inmaculada Mujika**, gay, lesbiana eta transei arretoa ematen dien Aldarte kolektiboko kidea.

- **Lucas Platero**, Soziologiako eta Zientzia Politikoetako doktorea, Esku-hartze sozio-komunitarioari buruzko eskolak ematen ditu. Hainbat ikerketa eta argitalpen egin ditu.
- **Sejo Carrascosa**, Gasteizko Transbollomarika Sarea kolektiboko aktibista. Hainbat lan-saio eta argitalpen osatu ditu, elkarlanean.

Lan-saioaren eskema

- Mireia Espiauk, Berdintasunerako Zerbitzuko buruak, ongietorria eman eta eguna aurkeztu du.

- Gasteizko Genero Berdintasunaren IV. Planaren (2018-2021) ildo estrategikoak eta gaur egungo egoera laburbildu ditu Ibain Aholkularitzako Sara Ibarrolak.

- Gasteizko LGBTI herritarren errealitateari buruzko diagnostikoaren emaitzak aurreratu ditu Aldarte kolektiboko Inmaculada Mujikak.

- Hausnarketak ordenatzen lagun dezaketen gai ez-itxiei buruzko hausnarketa eta eztabaida:

- Hezkuntza arloa
- Interseksionalitatea
- Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko politikak
- LGBTI mugimendua
- Kultura

2. Gasteizko IV. Berdintasun Planaren (2018-2012) eta Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoaren inguruko aurkezpenen laburpena

Gasteizko IV. Genero Berdintasun Plana (2018-2021)

Ibain Aholkularitzako kide Sara Ibarrolak adierazi duenez, parte-hartzearen bidez eta beste prozesu batzuetatik elikatuz ari da osatzen IV. Plana. Plana osatzeko, kontuan hartu dira, batetik, aurreko Planaren balorazioa, eta, bestetik, [III. eta IV. Planaren arteko igarotaldia egiteko prestatu zen 2017ko Agenda](#). Planifikatze-aldi honetan, Udalak martxan dituen Berdintasun neurri guztiak bildu behar dira, eta iraunkor bihurtu, eta, horrez gainera, betekizun berriak ezarri behar dira. Gainera, plana osatze aldera, hausnarketa lan-saio bat egin zen: lan-saio horretan, instituzioetako, akademiako eta enpresa-munduko hainbat aditu bildu ziren, Berdintasun politikek egindako bidea aztertu zuten, eta IV. Planean txertatu beharreko ildo estrategikoak zehaztu zituzten elkarlanean.

5 lan-ildo proposatu dira IV. Planaren barruan:

5

1. Udal gobernuaren ereduaren berdintasuna.
2. Herritarren eskubideak bermatuko dituzten baliabideak lortzeko sarbidea (zaintza, pobrezia etab.).
3. Ahalduntze feminista. Ildo horretan hainbat prozesu abiatu dira jada: Emakumeen Etxea eta Emakumeen Berdintasun eta Ahalduntze Eskola sortu dira.
4. Hiri seguru eta inklusibo bat, indarkeria matxistarik gabea.
5. LGTB ikuspegia udal politiketan.

IV. Planean, orientatzeko printzipio gisa hartu da interseksionalitatea. Plan honetan, LGTB ikuspegia txertatu da lehenengo aldiz, eta horregatik ezarri da ildo gisa, ikusgarria izan dadin eta errazago lor daitezten ikuspegia martxan jartzeko baliabideak. Izan ere, zeharka agertuko balitz, lausotu egingo litzateke. Edonola ere, zalantzak sortu dira, hori ote den LGTB politikak txertatzeko modurik onena, eta adierazi da akaso lan-saio honetan zehaztu daitekeela zein den biderik egokiena.

Gasteizko LGTBI herritarren errealitatei buruzko diagnostikoa

[Aldarte](#)ko kide Inmaculada Mujikak, hasteko, eskerrak eman dizkie Diagnostikoa osatzen lagundu duten 150 informazio-emaileei. Mujikak azaldu duenez, hainbat informazio bildu dute, sei alorren inguruan: espazio publikoa, aisia eta kultura, elkartegintza, lana, kirola, hezkuntza eta osasuna.

Bi eratako datuak bildu dira. Batetik, galdetegi bati erantzun dioten LGTBI pertsonak daude: horiek denek baliabide kulturalak, informatikoak, ekonomikoak eta sozialak daukate. Beste alde batetik, eztabaida-taldeen parte hartu duten LGTBI pertsonak bestelako datuak eman dituzte; izan ere, pertsona horiek egiturazko beste diskriminazio-eta zapalkuntza-ardatz batzuk jasaten dituzte, ez bakarrik hautu sexualarekin eta genero-identitatearekin loturikoak: mendebaldeko kulturatik kanpokoak dira, ijitoen herrikoak, seropositiboak, adinekoak, arautu gabeko eta estigmatizaturiko lanak dituzte (hala nola sexu-lana), indarkeria bizi dute bikotean, asiloa eskatu dute edo buru-desgaitasun bat dute. Zaugarritasun-iturri horiez gainera, batzuk transak edo intersexualak dira, ez ordea agerian, eta, horren ondorioz, bizitza bikoitza bizi dute.

6

Diagnostikoa osatze aldera elkarrizketatu diren pertsona guztiak eman dute zapalkuntza jakin eta komun batzuen berri, gizartearen funtzionamendu heterosexista, baztertzailerik eta bitarraren ondorio direnak. Elkarrizketatu guztiak adierazi dute eraso eta diskriminazio fisikoak eta berbalak jasan dituztela, eta, batez ere, jakin-nahizko eta mespretxuzko begiradei aurre egin behar diotela egunero-egunero. Eraso gehien non gertatzen den, bada esparru publikoan, kirolean eta hezkuntzan.

Jendearen heterosexualitatea emantzat jotzea, horixe da elkarrizketatuek azpimarratu duten diskriminazio nagusia. Erasoei iskin egiteko estrategia, berriz, LGTBI gisa ez agertzea.

Elkarrizketatuek oro har adierazi dute instituzioei ez zaizkiela beren arazoak axola, eta orobat adierazi dute bigarren mailako pertsona gisa sentitzen direla. Ez da kanpainarik egiten herritarrak LGTBI fobiaz kontzientziatzeko, ez dago erasoei erantzuteko protokolorik, ez dago biktimak artatzeko eta haiei laguntzeko zerbitzurik, udal poliziak ez du formaziorik jasotzen; hori guztia kritikatu dute elkarrizketatuek. Bestelako testuinguru kulturaletatik datozen pertsonak, berriz, onberagotzat jo dute Gasteizko errealitatea.

1 Azkenean, lau ildok osatuko dute IV. Plana: 1. ildoak: Udal gobernuaren ereduaren berdintasuna. 2. ildoak: Zaintzen ekonomia feminista. 3. ildoak: Ahalduntze feminista. 4. ildoak: Indarkeria matxistari gabeko hiria.

Elkarrizketatutako LGTBI pertsonak hainbat gauza eskatu dituzte: sentsibilizazio-, kontzientziazio- eta prestakuntza-lanak egiteko beharra ikusten dute. Ondo bizi nahi dute, berdintasunez tratatu ditzatela, eta ez dute diskriminaziorik jaso nahi. Neurri espezifikoak behar dituztela esan dute, egoera zaugarrienak kontuan hartuz: adineko jendea, aniztasun funtzionala dutenak, beste kultura batzuetako jendea, seropositiboak...

Diagnostikotik abiatuak, zaugarritasuna sortzen duten eta hortaz LGTBifobiaren eragina areagotzen duten zenbait aldagai identifikatu dira: intersexualitatea eta transexualitatea gaixotasuntzat jotzen dira, eta sailkatze horrek muturreko indarkeria eta kalte psikologikoak dakartza; LGTBI taldeko zenbait pertsonak jarrera xenofoboak eta arrazakeria pairatzen dituztenez, zailagoa gertatzen zaie agiri administratiboak lortzea, eta, horren ondorioz, lanpostu prekarioetan jarraitzen dute (etxeko lanetan eta sexu-lanean); etxebizitzak lortzeko zailtasunak dituzte (batez ere ijitoek eta latinoamerikarrek); bakardade handiagoa bizi dute, eta sozializatzeko eta adiskideak egiteko espazio gutxiago dauzkate. Inguru arabiarreko eta ijitoetako pertsonak kontatu dutenez, beren komunitateen babesa galtzen dute, eta babes hori ezinbestekoa zaie gizartean erroturik dauden jarrera arrazista eta xenofoboei aurre egiteko.

Amaitze aldera, Inmaculada Mujikak esan du proposamen ugari atera direla alor guztietan, Diagnostikotik abiatuak. Zenbait gauza zuzenean bil litezke IV. Berdintasun Planean bertan, Udalak eskumena baitu horietan. Beste batzuetan, ordea, Udalak ez duenez eskumenik, LGTBI jendeak Udalari eskatu dio bere eragin politikoa erabil dezala (adb.: osasunean eta hezkuntzan).

3

3. Eztabaida nagusien laburpena



Hezkuntza arloa

Tokiko markoak zer aukera eskaintzen dituen hezkuntza arloan gertatzen den eta sexu-hautuarekin eta genero-identitatearekin loturik dagoen diskriminazioari aurre egiteko.

ANALISIA ETA HAUSNARKETAK

Lucas Plateroren iritzian, politika publikoak analizatu nahi baditugu guztiz premiazkoa dugu subjektu politikoa zalantzan jartzea, unibertsaltzat jo izan baita. Platerok uste du askotariko subjektuak hartu behar ditugula kontuan alor guztietan. Hezkuntzara etorrira, haurtzaroa derrigorrean heterosexuala dela pentsatzeari utzi behar diogu, eta familiek eta irakasleek ere derrigorrean heterosexual behar dutela ondorioztatzeari utzi behar diogu; edonola ere, hautaketa-prozesuen ondorioz, irakasleria ez omen da hain anitza.

Ekintza batek eraginik ote duen jakiteko, kasuan kasuko testuinguruan baztertuen dagoen kolektiboaren egoerari begiratu behar diogu, Dean Spadek *Una vida "normal"* liburuan dioen moduan. Plateroren ustean, egoera bat konpondu nahi badugu, hasteko, premiak aztertu behar ditugu, eta protagonistei galdetu behar diegu ea nola konpondu daitekeen arazoa, denen beharrak gurutzatuz. Azpimarratu du ez daukagula ohiturarik subjektu unibertsaletik harago pentsatzeko. Hala, iruditzen zaigu ikasleek, irakasleek eta familiek nor bere problemak dituztela, ezberdinak. Ez dugu konponbide gurutzaturik proposatzen.

Adibidez, uste dugu ikasgeletan gertatzen direla gauza benetan garrantzitsuak, baina, egiatan, espazio komunetan gertatzen denari erreparatuz gero (komunetan, pasabideetan, jangelan, atarian, patioan gertatzen denari), zeintzuetan arazoak pizten baitira sarri, ikus dezakegu nola eraikitzen diren harremanak. Plateroren arabera, Udalak esku hartu beharko luke halako espazioetan, hezkuntzarekin loturik baitaude eta, gainera, Udalaren izenean baitaude sarri. Espazio gatazkatsuak debekatzeko edo ixteko joera dago (adibidez, kafetegia), ez ordea halako tokiak geure lanean txertatzeko, hezkuntzaren arloko esku-hartze parte-hartzaile edo kolaboratibo bat eginez.

Eskolaren eta inguruaren arteko harremanaren harira, familiekiko harremanetan aurrez suposatu ohi da familiak heterosexualak eta nuklearrak direla –bestalde,

Guraso Elkarte ez baizik Familia Elkarte deitu behar liratekeela uste du-. Plateroren arabera, eskolan parte hartzeak kostu pertsonal handia ekartzen die LGTB familiei.

Adin txikikoei eskaini beharreko arreta dela-eta, arazo-iturriztat jo ohi dira LGTB familiak, betiere Plateroren iritzian. Diskriminazioa aipatu ohi da, baina ez da ezer esaten LGTB pertsonen eskolari edo gizarteari egiten dioten ekarpenaz, ez eta kolektibo horretako pertsonen garatzen dituzten gaitasunaz ere, hala nola estresari aurre egiteko eta kudeatzeko gaitasuna edo sexualitateari buruzko ikuskera berri bat.

Plateroren ustean, zentroak ez dira bereziki LGTBfoboak, baina itzuri egiten diote arazoei, haiei ez balegozkie bezala. Ikusgarritasuna eman behar zaie zentroetan halako gaien ardura hartuko duten pertsonen, adibidez, berdintasunaz arduratuko diren eta/edo LGTB pertsonentzat erreferentziazkoak diren irakasleak izendatuz, horretarako prestatuak daudenak eta proiektu zehatzen buru izan daitezkeenak. Zentzu horretan, Platerok uste du instituzioek erantzukizun handia dutela: laguntza eskaini behar diete hezkuntza-zentroeiei, eta propio halako egitasmoak garatzeko diru-partidak eman.

Platerok gogora ekarri duenez, azpimarratu behar da ikasle batzuk oso zaugarriak direla, besteak beste, genero-adierazpen minoritarioa edo arauaz kanpokoa dutelako, edo aniztasun funtzionala dutelako, edo ez daukatelako etxerik; gainera, hori dena beste arazo batzuekin lotzen da sarri, eta erraza da halako ikasleek hezkuntza-sistema uztea eta gizarte-zerbitzuetan amaitzea. Platerok dioenez, alor horretan ez dago prestakuntza handirik, ez baita goiz hausnartzen gazteek bizi duten gizarteari buruz, baina, ikertzailearen iritzian, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen esparrutik kanpo ere landu behar da errealitate hori. Interseksionalitatea ez da soilik hainbat bazterketaren bidegurutzea, ezpada agentzia aldarrikatzeko aukera. Beraz, halakoak bultzatu nahi lituzke: herri unibertsitateak, adinekoen unibertsitateak, eskola-babesa emateko zerbitzu sozialak...

Iruditzen zaio jarraipena egin behar zaiela zentro publikoetan eta itunpekoetan gertatzen diren diskriminazio-kasuei, eta beste bi gai hauei ere heldu behar zaiela: LGTBfobiari eta diskriminazioarekin loturiko eskola-absentismoari (ikasleek eskolara joateari uzten diote diskriminaturik sentitzen direnean, adibidez, trans neska-mutielek hala egin ohi dute eskola toki arriskutsutzat jotzen badute).

Kirol-lehiaketak, horra hor landu beharreko beste gai bat, betiere Plateroren iritziz. Izan ere, halako lehiaketek arazoak sortzen dizkiete trans pertsonen, aniztasun funtzionala dutenei eta erlijio-praktika jakin batzuk egiten dituzten pertsonen, adibidez, hiyab-a erabiltzen duten neskei. Nolako kirol-praktikak nahi genituzkeen, eta zergatik hautatzen diren praktika jakin batzuk eta ez beste batzuk: horretaz guztiaz hitz egin behar omen litzateke.

Izen bereziek ere tira-birak sortzen dituzte eskoletan. Nahiz eta orokorrean uste izan den kontu horrek trans pertsonen baina ez diela eragiten, bada bere izenarekin identifikatzen ez den bestelako jenderik ere (adibidez arrazializatutako pertsonak edo leinu batzuetako pertsonak). Gainera, identitate-agiriak eskolan erabili behar izateak arazoak dakartza, zeren, izena aldatzeko aukera egonda ere, izen zaharrari eusten zaio NAN agirian.

Azken finean, Plateroren arabera, hezkuntzak bere helburuak eta ardurak zabaldu behar dituela onartu behar dugu, eta, horretarako, baliabideak eta finantzazioa behar dituela, proiektu propioak garatuko baditu. Ardura konpartitu handiagoa hartu behar dugu generoaren, islamofobiaren eta prekaritatearen harira, eta zentroen premiei eta zentroi eman behar zaien laguntzari buruz hausnartu behar dugu.

Bestalde, [Transbollomarika Sarea](#) kolektiboko aktibista Sejo Carrascosak esan du borondate politikoa ezinbestekoa dela; izan ere, borondate politikorik ezean, nekez mamitu baitaitezke berdintasun politikak modu egokian, udaleko sail jakin baten “adeitasunaren” mende egon gabe. Jende guztiaren atsegineko politikak sortu nahi dituzte politikariek. Eta nola heldu LGTBI auziari? Carrascosaren iritziz, gizartean dauden matrize heterosexualetan eragin behar da. Aldi berean, hezkuntzaren alorrari tiraka, zalantzan jarri du haurrei ematen zaien hezkuntza: itunpeko zentroetara, zentro erlijiosoetara eta egitura ekonomiko altuetako zentroetara joaten dira asko, eta horietan denetan segregazio basatia dago, eta balio homofoboak eta ez solidarioak irakasten dituzte. Carrascosaren arabera, hezkuntza publikoan segregazio- eta pobrezia-poltsak sortzen ari dira, eta etorkizunean eragina izango dute gizarte-zerbitzuetan eta espetxeetan.

Komunei buruzko analisia dela-eta (ikus Interseksionalitateari buruzko ataleko *Praktika onak* puntua), Fefa Vilak adierazi du egituretan geratzen garena sarri. Vilaren iritzian, egiturak birdefinitu, berrerabili eta kontzeptualizatu behar ditugu, zeren egiturek geure psikea eta aldartea egituratzen baitituzte, gorputzaren gainean ekiten baitute, eta fantasiaren gainean ere bai... eta zaila da egitura horiek aldatzea. Horregatik, pauso bat harago jo eta jolasean esku hartu behar dugu, haurrek jolasaren bidez ikasten baitute eta elkarri eragiten baitiote. Gorputza nola erabiltzen den, espazioak zer funtzio betetzen duen eta adin jakin batetik aurrera zer segregazio klase gertatzen den: horretan guztian, zer rol betetzen dugu askotariko eragileok? Vilari premiazkoa iruditzen zaio eragile guzti-guztiok aztertzea geure rol hori. Iruditzen zaio hezkuntzaren arloan berriro pentsatu beharko lirakeela kontu hauek guztiak, nola egituratzen duen jolasak haurtzaroa, eta, hala, kirolarekin, maila sinbolikoarekin eta harremanak egiteko gure moldeekin loturiko politika bat diseinatu beharko litzateke.

PROPOSAMENAK

- Proiektu propioak garatzeko baliabideak eman, horren arabera gauzatu baitaitezke bestelako proposamenak ere.
- Eskolan lantzen diren edukietan eragin, horretarako, ikasgelatik harago doazen proiektuak antolatu, “markaturiko egunetan” eta bestelako egunetan.
- LGTB ikasleentzat erreferentziazkoak diren eta Berdintasuna alorrean erreferentziazkoak diren irakasleak izendatu.
- guneroko espazioetako eta kultur espazioetako araua hautsi eta errealtatea beste modu batean irakurtzeko eta interpretatzeko aukera eman.
- Espazioarekin zerikusia duten edo beste zentro batzuetan gertatzen ari diren egoerekin zerikusia duten eta bestelako harreman-moldeak bultzatzen dituzten eguneroko praktikak txertatu (nesken errealtatea, LGTB herritarrak, islamofobia etab.).
- Kirol-praktikak nola hautatzen diren ikusi, eta zer praktika nahi dugun erabaki.
- Jolasetik abiatuta, politika propio bat diseinatu, kirolarekin, maila sinbolikoarekin eta harremanak egiteko gure moldeekin loturikoa.
- Gatazka bat gertatzen denean, parte hartuz eta beharrak gurutzatuz heldu gaiari, eta ez egin subjektuei buruzko irakurketa unibertsalik.
- Jazarpenari aurrea hartu; horretarako, gatazken konponketari eta elkarbizitzari buruzko prestakuntza eskaini ikasleei, eta ikasleak izan daitezela gizartearen aldatzearen eta elkarbizitzaren aldeko eragile.
- Jarraipena egin zentroetan gertatzen diren diskriminazio-kasuei (hala itunpeko zentroetan nola publikoetan gertatzen direnei).
- Zentroetan NANA erabili behar ote litzatekeen aztertu.
- Izen-aldaketen harira, administrazioen ekintzen ardura hartu, zentzu komuna erabili eta norbanakoek eskatu dituzten aldaketak txertatu.

- 👤 LGTB familiek eskolari eta gizarteari egiten dizkioten ekarpen positiboak ikusarazi.
- 👤 LGTB berdintasuna hauspotzeko proiektuak dauzkaten eskolen sareak bultzatu.
- 👤 Dagoeneko martxan dauden praktika onak ikusarazi.

👤 Interseksionalitatea

ANALISIA ETA HAUSNARKETAK

Ikuspegi interseksionala tokiko politikan: zer da eta nola gauzatu dezakegu teoria praktikan?

12

Lucas Platerok azaldu duenez, errealitate haragiztatu batek zeharkatzen gaitu: generoak, etniak, klaseak, jatorri nazionalak, aniztasun funtzionalak... Identitate-formak dira horiek guztiak eta, sarritan, nahasirik daude. Malguak dira, gizarte jakin batekin loturik daude, bestelakoak izan litezkeela ikusarazten digute, eta zalantzan jarrarazten digute nola baldintzatzen dituzten gure bizitzak. Jakintza horrek gizarte mugimenduetan du sorburua eta, hala, praktika politikoak zeharkatzen ditu. Platerok azpimarratu duenez, ezin dugu errealitatea modu itxian deskribatu, izan ere, hainbat esperientziaren mihiztadurek osatzen baikaituzte.

Soziologia eta Zientzia Politikoetako doktorea den honek proposatu du politikak sortzea halako moduan non kontuan hartuko baita lehen begi kolpean ikusten ez den hori, administrazio publikoak arreta jartzen ez dion hori. Iruditzen zaio zaurgarritasunaz hitz egin dezakegula, eta orobat hitz egin dezakegula zaurgarritasunak dituzten pertsona horien eguneroko bizitzan sor genitzakeen aldaketez.

Coll-Planasek eta Platerok hainbat adibide proposatu dituzte, agenda publikoan ikuspuntu interseksionala sartzearen harira, eta *Praktika onak* atalean bildu ditugu horiek denak.

Nola txertatu ikuspuntu interseksionala politika publikoetan: egituran txertatuz ala lehentasunak ezarriz?

Lucas Plateroren iritziz, diagnostiko bat egin behar da, horren bitartez jakingo

baitugu zeintzuk diren diskriminazioaren gakoak eta lagunduko baitugu ekintzak eta lan-ildoak zehazten eta zerbitzu eta zinegotzigo estrategikoak identifikatzen.

Gerard Coll-Planasek esan du instituzioek jaramon egin behar diotela diagnostikoari, horri esker jakingo baitute zeintzuk diren lehentasunezko neurriak. Edonola ere, *feeling* handiagoa norekin, harekin lan egin ohi da, beraz udal sailetan dabiltzan pertsona konkretuak garrantzitsuak dira. Hori dela eta, sail guztiz garrantzitsu batzuetan ez da esku hartzen, eta beste batzuetan, berriz, lehentasunezkoak izan ez arren, lan gehiago egiten da, horretarako aukera dagoelako.

Era berean, Vic-eko Unibertsitateko irakasleak uste duenez, beste arlo batzuetan ere aurrerapenak egin nahi baditugu, ardatz ezberdinak lantzea ez da beti lagungarri, zeren modu itxian lan egiten dugu eta zerbitzu bakoitzak bere politika du. Zerbitzuei eskatzen diegu beren aurrekontuko dirua eman diezagutela beste ardatz batean inbertitzeko, atzetik ibiltzen gatzaizkie gurea garrantzitsuagoa dela esanez, hainbat zerbitzuri egokitzen zaie prozesu berbera egitea urte berean... Coll-Planasek uste du elkarrizketa-prozesu zabalgoak egin behar genituzkeela, nor bere kasara ibili ordez.

Fefa Vilaren ustez, berriz, aztertu behar dugu ea non kokatzen diren gaur egun Berdintasun politikak, eta nola ari diren antolatzen. Interseksionalitatearen diskurtsoa nola kontzeptualizatzen den eta nondik datorren, horren arabera kokatuko dugu, edo ez, Berdintasun politiken barruan. Horrek dakartzan gatazkak ere aztertu behar dira. Vilak azpimarratu du itzulpena eta hausnarketa behar direla. Nork egiten duen lan norekin, horren arabera izango da ekintza, eta ez politika hauen guztien esangurari buruzko hausnarketa- eta ekintza-marko politiko zabalago baten arabera. Vilaren iritzian, gure buruari galdetu behar diogu ea agenda feministatik abiatu behar ote ditugun Berdintasun politikak, eta, hala balitz, gure buruari galdetu behar diogu ea zer den agenda feminista bat XXI. mendean.

Vilak uste du instituzioetan gehiago hausnartu behar litzatekeela gai hauen inguruan: zer den interseksionalitatea, LGTBQ politikak teoria feministaren eta genero-teoriaren mendekoa izan behar ote duen, horrek guztiak zer dakarren baliabideen eta baliabideak lortzeko borrokaren mailan, eta zer lehentasun ezarri behar liratekeen. Berdintasun planak direla-eta, aztertu behar dugu ea sortzen ditugun tresnek balio duten, eta mahai ganean jarri behar ditugu argi ez dauden problematikak, eta horiei buruz eztabaidatu eta gogoeta egin. Hala ere, uste du ez dagoela borondaterik halakoak egiteko. Behetik gora lan egin behar dela uste du, eta udaletxeak aukera ona izan daitezkeela lehen aipatu duen itzulpen-lan hori egiteko.

Sejo Carrascosaren arabera, benetako politika feministarik ez badago, instituzioek ez dute modu egokian esku hartzen. Hala, Berdintasun politikak ezartzen dira, baina,aldi berean, diru-laguntzak ematen zaizkie hainbat elkarteri, nahiz eta

beren zuzendaritza-batzordeek parekidetasun-irizpideak ez bete eta Berdintasun legearekin bat ez datozen jarduerak antolatu (adibidez, Blusa eta Neska kuadrilla batzuek). Iruditzen zaio ezin dela jende guztiari atsegin emanez gobernatu; aitzitik, programa zehatz eta kokatu batekin gobernatu behar da, eta premia handiena duten sektoreei lehentasuna eman. Ez da soilik LGTB taldeei begirako politikez ari, ezpada giza eskubideetan oinarrituriko politikez eta programa koherenteez.

Iruditzen zaio administrazioak gabezia sakonak dituela eta ez dela gardena, nahiz eta, berez, zera publikoa kudeatzeko tresna bat baino ez izan. Berriro dio: borondate politikoa nola lortu, horixe da eztabaida nagusia.

Gerard Coll-Planasek azaldu duenez, Katalunian, 12.000 biztanletik gorako udalerriek LGTB gaiari buruzko tokiko plan bat osatu behar dute, derrigor², eta horrek ondorio positiboak ekarri ditu, lurralde osoan ari baitira gaia lantzen. Edonola ere, “Berdintasun planaren fetitxismo” moduko bat sortu da. Bartzelonako diputazioak gida bat atera du, [Guía per a l’elaboració de plans locals LGTB](#), eta horri esker, moztuz eta itsatsiz osa dezake nork bere plana. Beraz, horren ondorioz, Planaren beraren edukia husten da, azkenean Plan bat osatzea bihurtzen baita helburu. Coll-Planasek galdera bota du, ea nola egin diezaiogegun iskin edukirik gabeko politikei, eta ea nola sor ditzakegun administrazioa eta ingurua eraldatuko dituzten politikak.

14

PRAKTIKA ONAK

📌 [El váter de la escuela. Una reflexión sobre género, arquitectura y educación](#) izeneko artikulua idatzi zuen Amelia Barquín. Filologia Errromanikoko doktorea da bera, eta Kultura Arteko Hezkuntza eta Hezkuntza eta Generoa irakasten ditu HUHEZIn (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean). Testu horretan, hauxe proposatu zuen: eskola fisikoki eraldatzea, horren bitartez curriculuma eraldatzeko eta birpentsatzeko. Errealitateak berreraikitzekeo prozesu parte-hartzaileak egitea proposatu du. Ondorioztatut du, komunak aldatuz gero, hainbat kolektibori egingo litzaiokeela mesede – neskei, transei–, eta, gainera, bestelako abantailak ere ekarriko litzukeela, hala nola demokratizazioa handitzea eta bainua propiotzat hartzea, hala, bandalismo gutxiago gertatuko litzateke eta komunak garbiago egongo liriteke.

📌 LGTB planaren ondotik, Kataluniako gune batean aipatu zen LGTB gazte gehienek ez zeukatela elkartzeko tokirik, diskotekak, tabernak eta herriko jaiak

² Lley 11/2014: Llei per a garantir els drets de lesbianes, gais, bisexuals, transgènere i intersexuals i per a eradicar l’homofòbia, la bifòbia i la transfòbia: <http://v-g.eus/2FflCBk> (katalanez. Iturria: Viquipèdia) eta Ley 11/2014, de 10 de octubre, para garantizar los derechos de lesbianas, gays, bisexuales, transgéneros e intersexuales y para erradicar la homofobia, la bifobia y la transfobia: <http://v-g.eus/2mdLDtN> (gaztelaniaz. Iturria: Noticias Jurídicas).

ez baitzitzaizkien gune seguru iruditzen. Aisialdi-gune komertzialetan eragiteko kanpaina bat egitea pentsatu zuten, hartara ikusgarritasun eta errespetu handiagoa lortzeko, baina azkenean ez zuten halakorik egin. Izan ere, konturatu ziren, LGTB ardatzari bakarrik helduz gero, beste gai batzuk ezkutuan geratuko lirатеkeela, eta orduara arte kontuan hartu gabeko beste diskriminazio batzuk sortuko lirатеkeela: indarkeria sexista, jatorriaren aurkako xenofobia, adina etab. Ezin baitzen alor gehiagotan lan egin, proposamena atzera bota zuten.

☛ Espazio publikoa nola erabiltzen zen aztertzeko diagnostiko bat egin zuten Bartzelonako zenbait auzotan, eta, horretarako, auzotarrei eskatu zieten mapa bat egin zezatela, auzoan egiten zituzten ibilbideak deskribatuz, eta azaldu zezatela nola sentitzen ziren auzoan eta nola erabiltzen zuten. Hala, ardatzak gurutzatzen ziren eta loratu edo desagertu egiten ziren, espazioen eta testuinguruaren arabera: adina, sexua, jatorria, aniztasun funtzionala... Aitzitik, espazio publikoa aztertzeko orduan ardatz bakar bat hartu balitz kontuan, errealitatearen puska handi bat kanpoan geratuko litzateke.

☛ Katalunian, Ismael Smith margolari homosexualaren urteurrenean eta Lorcaren heriotzaren urteurrenean hainbat ekintza antolatu ziren, honako gai hauen guztien inguruan: buru-osasuna, sexu-aniztasuna, memoria eta errepresioa, kultura eta literatura...

☛ Montevideon, berriz, Intersecciones izeneko programa bat antolatzen dute, eta hainbat esparrutako pertsonen arteko eztabaidak egiten dituzte urte osoan. Goitik hasi orde, egunerokotik abiatzen dira, ea zer ateratzen den. Hortik abiaturik, politika publikoak sortu.

PROPOSAMENAK

☛ Tokiko esparrutik abiaturik, eztabaida bat sustatu, Berdintasuna politikak gauzatzeko tresnen baliagarritasunari eta interseksionalitateari buruz.

☛ Ezberdintasunarekin loturiko zerbitzu/ardatzen arteko elkarrizketa-prozesu zabalagoak egin.

☛ Diagnostiko bat egin, hauek denak aztertzeko: diskriminazioak, ekintza-ildoak eta lehentasunezko lan-alorrak.

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko politikak

ANALISIA ETA HAUSNARKETAK

Berdintasun politikak, LGTBI politiken markoa

Lucas Plateroren iritziz, Berdintasun politikak dira politika interseksionalak txertatzeko marko aproposena, binarismoa eta sexismoa ez baitira bi gauza ezberdin. Gainera, iruditzen zaio binarismoaz eta heterosexualitateaz hitz egiteko toki atsegina dela, langileek bien arteko lotura ulertzen baitute.

Gerard Coll-Planasek jakinarazi du Katalunian bi une garrantzitsu egon direla sexu- eta genero-aniztasunari buruzko politiketan. 2004tik 2014ra bitarte, Gizarte Zerbitzuen ardura ziren, eta ez zuten inongo harremanik Berdintasun politikekin. Horren ondorioz, politika zentzugabeak eratu ziren, adibidez, Hezkuntza arloan bi toki ezberdinetatik esku hartu nahi izan zen. 2014an, ordea, Kataluniako politikak hedatu egin ziren, eta LGTBI arloari buruzkoak Berdintasuneko teknikarien esku geratu ziren, berez-edo, ezinezkoa baitzen LGTBI gaiarekin espezifikoki loturiko langileak edukitzea, ez baitzegoen baliabiderik, baina, baita ere, zenbait aktibista feministari, teknigariri eta legetariri premiazkoa iruditu zitzaielako markoak aldatzea eta ikuspegi zabalago batetik lan egitea.

Coll-Planasek azaldu duenez, udal teknikarien artean badira bi ikuspegi: batzuek modu bitarragoan ulertzen dute, bi kategoriatan, hots, gizonak eta emakumeak. Beste batzuen ustez, ordea, marko teorikoak eta ekintza-markoak berritzeko eta ikuspegi estrukturalago bat lantzeko aukera bat da. Coll-Planasen arabera, udaletxe txikietan nork bere aldetik lan egiteko arriskua dago: azken buruan, Berdintasun zerbitzu binarista bat eduki ohi dute, zeinak talka egiten baitu LGTB arloan egiten den lanarekin. Iruditzen zaio badagoela beldur bat “ez ote gaituzten gizonak inbadituko, Berdintasun politikek ez ote dituzten ikuspegi feministaren lorpenak galduko, ez ote gaituzten gizon gayek kolonizatuko”. Coll-Planasek uste duenez, ulertu behar dugu auzi horiek guztiek oinarri berbera dutela, baina ez ditugula zertan elkartu. Kasuan kasu erabaki behar da, zer prozesutan, unetan eta zer gairekin egin. Era berean, planak eta neurri zehatzak ebaluatzeko orduan, talde batzuk edo beste batzuk ikusarazi daitezke.

Fefa Vilari iruditzen zaio marko egokia dela, baina birdefinitu beharra dagoela (helburuak, zer da Berdintasuna, zeintzuk dira feminismoaren ekarpenak, nola txertatu gizonak). Birpentsatu behar da zer zentzu duten Berdintasun politikek eta zer rol bete duten orain arte. Vilak azpimarratu du udal politiken estrategiak

birdefinitu behar direla, osterantzean, baliabide ekonomikoak, sinbolikoak eta materialak lortzeko borrokan sartzen baikara, eta petatxuak ipintzen baititugu.

Berdintasun zerbitzuek XXI. menderako balio duen ekintza-marko bat eskaini behar dute, subjektu gero eta anitzagoak kontuan hartuz: subjektu arrazializatuak, sexu-disidenteak etab. Berdintasun zerbitzuek pentsatu behar dute ea nola aktibatu daitekeen interseksionalitatea, epe motzeko, ertaineko eta luzeko politiken bitartez.

Nola gainditu binarismoa eta nola egin bestelako politiken alde? Horren harira, Lucas Platerok uste du eztabaida berriak sortu behar ditugula: nortzuk garen eztabaidatzeari utzi behar diogu, –adibidez, zer rol duten LGTB pertsonak edo gizonak Berdintasun politikan–, eta, ostera, zer egin nahi dugun eta nola egin dezakegun eztabaidatzen hasi. Premiak identifikatuz gero, errazago eraikiko dugu aldazio egoki bat, ondo esku hartzeko eta gai bakoitzean behar ditugun aliantzak identifikatzeko. Adibidez, izen-aldaketaren kontua aztertuz gero, ikusiko dugu nola, transei ez ezik, bestelako pertsona batzuei ere egin diezaiekeen mesede horrek, hala nola izena gaztelaniara moldatu dieten pertsona arrazializatuei edo tratu txarren ondorioz hiriz aldatu diren eta, segurtasuna tarteko, inork topatzea nahi ez duten emakumeei.

17

Fefa Vilak dioenez, egitea ez da beti posible. Egitearen indarra azpimarratu du, egin ahal izateko aukera errealak sortzearen indarra. Iruditzen zaio posible dela aldaketa eta egoera berriak politikara eramatea eta instituzioak eraldatzea.

Bartzelonako esperientzia

Gerald Coll-Planasek Bartzelonako kasuari buruzkoak azaldu ditu: bi politikak uztartu behar ote ziren eztabaidatu zuten han, eta aktibismoak ez ziren ados jarri. Azkenean, bi plan egin ziren, eta elkarren artean ondo artikulatu. Hala, [Plan para la Justicia de Género \(2016-2020\)](#) planaren egitura kopia zuten eta ekintzak konpartitu. Edonola ere, Coll-Planasek azpimarratu duenez, hainbat arlotan ikusi zuten LGTBI auzia ez zela esanguratsua eta ez zela ezer gertatzen (adb. garraioan). Ulertu zuten gizon-emakume ardatza askoz esanguratsua dela oraindik ere eremu askotan, eta aurreikusitako lan-eremu batzuk bertan behera geratu ziren ez zutelako esku hartzeko modurik topatu.

Era berean, ikusi zuten diagnostikoa egitean oso informazio-maila ezberdina jaso zutela batean eta bestean, kategoria bakoitzak oso datu diferenteak eskaintzen baititu. Genero Justiziarako Planean (2016-2020), eragin-adierazleak biltzen dira (adb.: zenbat emakumek hartzen duten autobusa gauzez eta bakarrik), bai eta emaitza-adierazleak

ere (adb.: prestakuntzara joan diren emakumeak). [Plan Municipal para la diversidad sexual y de género de Barcelona \(2016-2020\)](#) planean, ordea, ezinezkoa zen eragin-adierazleak aurkitzea. Bestalde, Coll-Planasek ontzat jo du administrazioak ez daukala informaziorik herritarren sexu- eta genero-aniztasunari buruz.

Oro har, Coll-Planasi iruditzen zaio, planak martxan jartzean, benetako eraginik gabeko gauzak egiten direla, soilik modari jarraituz. Uste du hobe dela gauza gutxiago egitea, baina sakonagoak; lurraldean bertan zentzua daukan horretatik abiatu, aukerak eta aliantzak baliatu eta behetik eraiki.

Aurrekontuen gaiak ere arazoak sortu omen zituen. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko ekintzek ez zutela zertan aurrekonturik eduki, horixe uste zen, logika honi jarraika: “Kirol Sailarekin hitz egingo dut, Kirol Sailak ordainduko du eta bere egingo du ekintza”. Coll-Planasek uste du oztopo handia izan zela hori. Orain, Kirol Sailarekin hitz egiten dute berdin-berdin, baina nork bere ekarpenetik.

Ikus-entzule batek galdetu du ea zer-nolako esperientzia izan duen Bartzelonako Udalak Europako Rainbow City Sarean, eta Coll-Planasek erantzun du Bartzelonak ez duela modu jarraituan parte hartu udaletxe-sare horretan, aldaketa politikoarekin moztu egin baitzen ibilbidea; orain, ordea, berriro sartu dira sarean. Azaldu duenez, informazioa elkar-trukatzeko gune bat da, eta ondo egon daiteke Europako beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta proiektu konpartituak egiteko. Gaineratu du Katalunian udal-sare katalan bat sortu zela, beste maila batekoa hori bai, tokiko prozesuei laguntzeko. Iruditzen zaio sare hori askoz emankorragoa dela, bilerak errazagoak direlako eta eztabaida interesgarri asko pizten direlako. Are, pentsatzen ari dira akaso barne-sare horrek eduki behar duela lotura sare europarrarekin, izan ere, udal txiki askorentzat ez dauka zentzurik Europako sarean zuzenean parte hartzeak.

Prestakuntza

Prestakuntza dela-eta, Coll-Planasek badu kezka bat: prestakuntza egitean badirudi parte-hartzaile kopurua dela garrantzitsuena. Prestakuntza-saio klasikoek atzean utzi nahi lituzke, eta galdetu du ea nola egin ditzakegun benetan eraldatuko eta astinduko gaituzten prestakuntza-saioak. Iruditzen zaio prestakuntza-estandar sendo bat ezarri behar dela, osterantzean definizioak ematen arituko baikara, begiradak eraldatu beharrean. Prestakuntzak behar adinako luzera izan behar du, eta, hasteko, kategoriak zalantzan jarri eta ikuskera mugitu behar du; gainera, emoziotik, aditzetik eta elkarrizketatik abiatuta lan egin behar da. Iruditzen zaio prozesu esanguratsuak izan behar dutela, jendeak balioan jar dezan bere jakintza,

baina segurtasun-eremuak ere izan behar dute aldi berean, iritziak eta zalantzak konpartitzeko modukoak (adb.: “zalantza bat daukat, baina agian homofobia da...”).

Erresistentziak nola landu? Formazioek derrigorrezkoak behar lukete? Galdera horien harira, Coll-Planasek uste du, derrigorrezko prestakuntzak eginez gero, gatazkak piztuko direla seguru. Beraz, erresistentziak aztertu behar dira. Gatazkarik bada, onena da zuzenean heltzea, eta birkokatzea; adibidez, galdetegi bat egin daiteke, desadostasunak agertzeko aukera handia ematen duena, eta hala ikus dezakegu zer-nolako lokatzetan gabiltzan. Bestalde, azpimarratu du zenbait erresistentziak gaiaren zilegitasuna jartzen dutela zalantzan –“hau mozolokeria bat da”–. Osasungarria iruditzen zaio erresistentziekin lan egitea, baina badago mugarik: “Zuk lan egiten duzun administrazioak konpromisoa hartu du hau aurrera eramateko, eta egin egingo da”. Sarri zilegitasunari egiten zaio eraso.

Coll-Planasen ustean, LGTBI modaren ondorioz, gizon-emakumeen berdintasunean interesik ez zeukaten udaletxe askok –“berriro ere hizkuntza, feminismoa...”– gaia birkokatu dute. Zentzu horretan, LGTBI auziak aukera ematen digu gizon-emakumeen berdintasuna birkokatzeke. Ulertzen du prestakuntzak generotik abiatu behar direla beti eta ez daukala zentzurik zuzenean LGTBI gaian sartzeak.

19

Fefa Vilaren iritziz, baliabide asko xahutzen dugu prestakuntzan, eta ezer gutxi lortzen: definizioak eta egitateak erreproduzitzen ditugu, eta ez dugu prestakuntza esanguratsu bat bultzatzen, zeinak begiradak eraldatuko dituen edo galderak piztuko dizkigun gertatzen ari denaz. Sentipena orokorra da: ez dugula aurrera egiten eta ez ditugula aldatzen ez mugitzen lan egiten dugun testuinguruaren gaineko begiradak. Zer prestakuntza ematen den, zeini eta zertarako; hori dena aztertu behar da, eta aurrean dugun publikoaren arabera egokitu. Adibidez, “zer da generoa” vs “zer egiten dut nire generoarekin”, bi ikuspegi ezberdin dira, premia ezberdinak asetzeko. Ez da kontuan hartzen pedagogia kritikoa, aitzitik, eskuliburuei eusten zaie; edonola ere, horrek gutziak ez du esan nahi feminismoak ez duenik bizitza irauli.

LGTBI politiken arriskua: lesbianak ez ikustea

Feminismo espainiarraren historia aztertu du Fefa Vilak, eta azpimarratu du lesbianismoa zintzilik geratu dela beti: “Mugimendu feministaren erizainak izan gara”. Vilaren iritziz, estatu espainiarreko feminismoaren historian garrantzia handia izan du lesbiana askoren disponibilitate politikoak eta aktibismoak; lesbianismoari eta lesbianeiei buruzko lan espezifikoak, ordea, orain gutxi hasi da. Politika publikoak direla-eta, den-dena dago egiteko, hala uste du Vilak. Halako esentzialismo bollero estrategiko baten alde egin du; helburua, zenbait gai ikusaraztea eta lantzea, hala nola hezkuntza, familia edo parte-hartze politikoa, izan ere, genero-politika

orokorren barruan lausotu egiten baitira eta ez baitira aurkezten politika posizionatu eta interseksional batetik. Eta gogora ekarri du berak queer-tzat duela bere burua...

Vilari iruditzen zaio heterosexualitatearen kausa handien alde lan egin dela feminismoan (adibidez, abortuaren alde) eta mugimenduen barruan testuinguru lesbofobo samarrak egon direla, ez zuzenean lesbianak diskriminatu dituztelako, baizik eta lesbianeiei zuzenean eragiten zieten gaiak bigarren mailakotzat jo direlako, hala nola familia-eredu askotarikoen gaia edo erreproduktzio-tekniken gaia. Vilari iruditzen zaio hutsune politiko handia dagoela, gaiaren inguruko teoria ugari egon arren.

Azaldu duenez, lesbofobiaz pentsatu behar da posizio queer eta interseksionaletatik abiatuta. Homofobia landu eta gero LGBTIfobia landu da, eta horretarako aterki *homo* homogeen samar eta ez oso posizionatu bat hartu da. Iruditzen zaio lesbianek pentsatu behar dutela ea nola birformulatzaren diren politikak LGTBQ siglen arabera, oso konplexuak baitira eta beren baitan ere sortzen baitituzte bazterketak, menderakuntzak eta unibertsalismoak. Iruditzen zaio, praxi horren barruan, berriro ere, lesbianismoa ez dela ikusten.

20

Hala, adibide gisara, sexu-aniztasunaren politiken gai nagusi bat aipatu du: sexualitatea. Lesbianen irudi oso naturalizatu bat sortu da, ez daukatela desirarik eta abar; ondorioz, halako gaiak eztabaidatzen diren agora publikoan, lesbianak ezkutuan geratzen dira.

Galdera bota du, ea zer mekanismoren bitartez gaindi daitekeen ikusezintasun hori, eta lesbianen aldarrikapenak eremu publikora eraman. Iruditzen zaio *homo* ikuspegia gay ikuspegitik abiatzen dela hainbat arlotan, eta feminismoak beste arlo batzuetatik hitz egiten duela. Bidegurutze horretan, lesbianak dira giltzarria: jakintza sortzen dute, baina jakintza horrek ez du eraginik, termino politikoetan, beren bizitzan. Berdintasun politikek birpentsatu egin behar dituzte siglak, maila politikoan ekin ahal izateko, eta ez bakarrik lesbianeiei dagokienez, ezpada bisexualei eta intersexualei dagokienez ere bai.

Inmaculada Mujikak adierazi duenez, Aldartek beti borrokatu du lesbianen agenda propioaren alde, adibidez, aspaldi sortu zuten '[Lesbianas visibles y con derechos](#)' proiektua: proiektu horrek politikoki eragin nahi du gizarte honetan ikusezina izateak eta lesbiana izateak dakarren horretan.

Sexu- eta genero-aniztasunaren politikek lesbianismoa berriro ere ikusezin bilakatuko ote duten, arrisku horren beldur da Vila. Haren iritziz, LG mugimendua zuzenean, eta emakumeak gehiago izanik eskubideak lortu zirenean, gayak gehiago

ahaldundu ziren lesbianak baino, aparte egonak baitziren. Vilaren ikuspegitik LGTBI+ siglak oso ondo daude, baina beldur da, lesbianen agenda ez ote den berriro ere geldituko. Azpimarratu du ez litzatekeela halako arriskurik egongo baldin eta Berdintasun politikek onartuko balute lesbianen aurkako egiturazko ezberdintasun bat gertatu dela historian. Baina ez dute halakorik onartzen eta iruditzen zaie LGTBI politiketan helden zaiola lesbianismoari, beraz, azkenean ez da lesbianeiei buruz hitz egiten inon: ez instituzioetan ez mugimendu feministan.

Lesbianen plan bat ez baizik ekintza zehatzak behar direla uste du. Lesbianeiei, emakume transei eta gizon transei begira egindako ekintzak. Iruditzen zaio inoiz ez zaiola behar moduan ekin ikusezintasunaren gaiari, gai pertsonal gisa aurkeztu izan dela, “emakume batek beste bati kontatu dio lesbiana dela”, baina erauzi egin zaiola dimentsio politikoa, kulturala eta soziala. Hala, ezinezkoa da lesbiana batek bere burua subjektu politikotzat hartzea, zeren, ikusezintasunaren ondorioz, ez baitago erreferente politikorik.

Galdera bota du, ea non dauden adineko emakume lesbianak, ea non dauden talde zaurgarrietako lesbianak, hala nola ijitoak edo arabiarak, zer gertatu zen frankismoan emakumeak maite zituzten emakumeekin... Deitoragarria iruditzen zaio historia hori galdu izana: “Emakume horiek hil egin dira eta ez dugu haien memoria bildu”.

21

Hezkuntza-zentroetan gertatzen den bullying LGTBIfoboari dagokionez, Inmaculada Mujikak kritikatu du, gehien-gehienetan, manera femeninoak dituen mutikoa hartu ohi dela subjektu nagusi gisa. Neska maskulinoak ahaldunduta daudela uste izaten da, eta, hala, ez da esku hartzen; Mujikak, ordea, galdetu du ea zer gatazka pizten diren neska hori hazi ahala eta femeninoagoa izan dadila exijitu ahala. Mujikaren ustez, beste gai honi ere heldu behar zaio: komun publikoetako zaingoari, zeina sarriago gertatzen baitzaie emakumeei gizonei baino. Komunetan, itxura maskulinoagoa duten emakumei kargu hartzen zaie emakumeen komunean sartzen direnean. Beste alde batetik, Mujikak salatu du lesbianak bortxatzen dituztela, zuzentzeko edo “sendatzeko”. Azken finean, azpimarratu du neurri espezifikoak behar direla hainbat gaitan, horregatik premiazkoa da buru-belarri lan egitea lesbianismoaren gain.

Fefa Vilak dio birpentsatu egin beharko litzatekeela zer esan nahi duen lesbiana izateak gaur egun, eta zeinek duen bere burua lesbianatzat, izan ere, Soziologiako fakultatean ikusten duenaren arabera, gazteek bestelako kontzeptuak darabiltzate. Iruditzen zaio izugarri aldatu direla nork bere burua izendatzeko moduak, eta hori dena aztertu egin behar dela, politikak horren arabera egokitzeko. Horretarako, uste du lesbianeiek eta zenbait marika eta transexual kolektibok konpartitu egin behar lituzketela beren egoerak. Vilaren arabera, lesbianismoa bazter utzi da, iraganeko behaztopa bat balitz bezala eta gaur egun espazio politikorik ez balego

bezala hori praktikan jartzeko, hala, lausotu egin da, eta sexu-identitatearekin loturik dauden eta ugaritzen ari diren beste kategoria batzuetan sartu. Ugaritzen ari diren identitate horietako batzuek muin historikoa dute, lesbianen praktiketan eta ekitean haragiztatua. Hona hemen Vilaren apustua: berrirakurketa praktikoa eta estrategikoa bat egitea eta esentzialismoa erabiltzea etendako genealogia hori armairutik ateratze aldera, “zeren, hitz egiteko aukerarik izan ez duen hori ezin baita eraiki”.

Iruditzen zaio politikak egin behar direla osasunaren eta hezkuntzaren arloan, bi arlo horietan zigorrak ezartzen baitzaizkie neska “gaiztoei”, bai eta gazteei eta adinekoei ere, izan ere, indarkeria sinboliko basatia baita genero-ordenaren oinarria. Eta, gehitu duenez, gai hori ez da apenas landu.

Gerard Coll-Planasen iritziz, halako munstro bat bihurtu da LGTBI kontua. Plana egitean saiatu ziren LGTBI siglak sistemaz ez erabiltzen eta kasuan kasu zentzua zeukaten letrak ipintzen. Ohartua dago akronimoa blokean erabili ohi dela, osoagoa delakoan eta, hala, aniztasuna kontuan hartzen delakoan, nahiz eta, funtsean, halako aniztasunik ez egon. Sarritan, I edo T gehitzeak ez dauka zentzurik, nola ez daukan zentzurik LGTBI turismoari buruz hitz egiteak.

22

Azaldu duenez, LGTBI plana egiteko taldean hiru kide elkartu ziren: aktibista trans bat, marika bat eta feminista lesbiana bat; ahal zuten guztia egin nahi zuten Plana ikuskera lesbiarretik hobetzeko, baina ez zuten modurik aurkitzen. Hala, pentsatu zuten bazegoela arazo bat alde zurretik: non militatu dute lesbiana askok? Azpimarratu du feminismoaren ezagutza zientifikoa eta horren askotariko korranteak aberastu dituztela lesbianek, baita ikerketa alderik ere, baina, Katalunian behintzat, ez dela ezagutza lesbiarrik ikertu ez eta ekoitzi ere. Horren ondorioz, ez zegoen planifikatu beharreko elementurik.

Aitzitik, zenbait aktibista eta ikertzaile lesbianak kanpaina bat antolatu zuten emakume lesbianen sexu- eta erreproduktzio-osasuna hauspotzeko; horri esker, jakintza ekoitzi zuten, eta proposamenak egin, eta, hala, askoz errazago txertatu dira aldarrikapenok politika publikoetan.

Gaiz beste eginda, Coll-Planasek ohartarazi du, batzuetan, marko androzentrikoa sendotzen dugula. Adibidez, gayek aisialdi-gune asko dituzte, lesbianek ez. Ez dugu emantzat jo behar gayen aisialdi-moldeek eta bertan sortzen diren lotura kaskarrekin izan behar dutenik beste kolektibo batzuen eredia. Espazioa eta markoa birpentsatu behar dira. Osterantzean, baliteke azkenean G sigla hartzea beste taldeek helburu izan behar duten paradigma gisa.

Iruditzen zaio antzeko zerbait gertatzen dela Kataluniako parte-hartze esparruetan, lesbiana gutxi aritzen baitira hor; agian gune horiek aldatu beharra dago, zeren, agian, gayek osaturiko *lobby* ez baita lesbianen eredu. Horregatik, parte-hartzea birpentsatzearen alde egin du berriro ere.

PRAKTIKA ONAK

- Hainbat aktibista eta ikertzaile lesbianak kanpaina bat antolatu zuten, emakume lesbianen sexu- eta erreprodukzio-osasuna hauspotzeko, Katalunian.
- Aldarte taldearen ‘Lesbianas visibles y con derechos’ proiektua.
- Sexu- eta genero-aniztasunaren Bartzelonako Udal Plana (2016-2020)

PROPOSAMENAK

- Udal politiken estrategiak eta planen egokitzapenak birdefinitu, tresna gisa erabiltzeko.
- XXI. mendeko Berdintasun politiken agenda birpentsatu eta feminismoaren ekarpenak aztertu.
- Gizonak txertatu feminismoan eta Berdintasun politketan.
- Politika feminista errealean eta koherenteen bidez ekin (adibidez, diru-laguntzen bidez).
- Zer egin nahi dugun zehaztu, eta hortik abiatuta, aliantza posibleak ezarri.
- Lesbianen ikusezintasunari heldu, osorik, maila politikoan, kulturean eta sozialean; erreferente politikoak hauspotu eta genealogia lesbiarra berreskuratu.
- Komun publikoen erabilerak eta emakume lesbianen “zaingoa” aztertu.

- 🗳️ LGTBIfobiarekin loturiko bullying kasuen harira, begirada zabaldu, eta neska maskulinoen errealitateari heldu.
- 🗳️ Lesbianen aurkako indarkeriari heldu.
- 🗳️ Siglak birpentsatu: politikoki ekiteko, modu koherentean erabiltzeko eta kolektiborik ez ezkutatzeko.
- 🗳️ Lesbiana izatea zer den eta kategoria eta identitateak nola erabiltzen diren birpentsatu.
- 🗳️ Kasuan kasu, markoa aztertu, politika androzentrikorik ez egiteko.

LGBTI mugimendua

24

ANALISIA ETA HAUSNARKETAK

LGBTI kolektiboek Berdintasun politikan betetzen duten rola eta haiek parte hartzeko bideak

Sejo Carrascosa aktibistaren iritziz, borondate politikoa da gakoa, izan ere, borondate politikorik gabe, alferrikakoak baitira parte hartzeko bideak. Are, iruditzen zaio batzuetan halako bideek ez dutela askorik balio, ezpada politikariek domina bat jartzeko. Carrascosaren iritzian, Gasteizko Udalak daukan parte-hartze egitura, Elkargune izenekoa, hauxe da: “arratsaldea galtzeko edo antropologia merkea egiteko toki bat”. Udalari begira, ordea, badirudi jendeak benetan hartzen duela parte, nahi duen orok hitz egin baitezake, eta bere iritzia eman. Horretarako, baina, “zuzendariari gutunak” erabili beharko lirateke, betiere Carrascosaren hitzetan.

Ez dauka oso argi ea Berdintasun zerbitzuak hauspotu behar dituen sexu- eta genero-aniztasuna. Batzuetan iruditzen zaio hori izango litzatekeela bidezkoena, baina, kontuan harturik “udal taldearen lorontzia” direla Berdintasun zerbitzuak, bada, LGBTI politikak bihur litezke “lorontziaren apaingarri”, eta hortaz ez lukete inongo indarrik izango.

Bestalde, Carrascosaren ustez, politika feministak eta LGBTIren aldekoak egin nahi baditugu, unibertsalak eta zeharkakoak behar lukete, udal sail guztiei eragiten baitiete eta ez bakarrik Berdintasun Sailari (adb.: Hezkuntza, Ogasuna, Gizarte Zerbitzuak, Segurtasuna, Herritarrak...). Ondorioz, bide askotatik har liteke parte, baina Carrascosaren iritziz, politikak erabilgarriagoak izan daitezten, behar-beharrezkoa da gardentasunez aritzea eta parte-hartzea ebaluatzea –“praktika horiek ez dira ohikoak administrazioan”–.

Carrascosaren arabera, administrazioak uste duena baino askoz heterogeneoagoak dira LGBTI kolektiboak. Zenbait kasutan, elkarrekin egon nahi duten eta borondatezko lana egin nahi duten taldeak dira, zeina oso modan baitago. Kolektiboek subertsibo izateari uzteko arriskua dago, eta, diru-laguntzen politikaren aurrean, klientelismoa sor dezakete, batez ere prekarietate-garaiotan.

Coll-Planasek azaldu du Katalunian izugarritzko moda bat ibili zela parte-hartzearen harira: parte-hartze kontseiluak egin ziren gai guzti-guztietan buruz. Gazteen parte-hartzerako teknikari gisa jardun zen Coll-Planas, eta taldeak konbentzitu behar izan zituen, parte har zezaten, halako “parte-hartzearen saltzaile” bat balitz bezala. Coll-Planasen beraren elkartearen kontraesan bat iruditzen zitzaion, parte hartzeko espazioak aldarrikatzen baitzituzten eta, azkenean, beren agenda politikoa bultzatu ordez, energia xahutzen baitzuten propiotzat hartzen ez zuten politika batean. Era berean, elkarteak kritikatu zuen espazio horietan ez zela erabakirik hartzen; eztabaidatu egiten zela, ez besterik.

25

Ondoren, tokiko politikei buruzko aholkulari ari zela, konturatu zen munstro bat sortua zela eta galdera bota du, ea zer egingo dugun orain hainbeste parte-hartze kontseilurekin, ez baitira produktiboak ez errepresentatiboak, *lobby* politikak baitaude eta horrek ez baitu eztabaida errazten, erakunde komertzialek parte hartzen baitute, bai eta aholkularitza gisa diharduten elkarteek ere, eta nork bere interesak baititu... Bere elkarteak esandakoaren harira, hots, kontseiluetan ez dela erabakirik hartzen, azpimarratu du Bartzelonako Udalak paradoxa itzela aurkitu duela: udal kontseiluko taldeek beste zerbait nahi dutenez, arduradun politikoei bertan behera utzi behar al dute hauteskundeetara aurkeztu zuten agenda politikoa?. Esate baterako, sexu-lanari buruzko edo trans taldeei buruzko politikak aipatu ditu Coll-Planasek: horiek ez dira sekula kontseiluaren lehentasun izango. Adibidez, kontseiluan dauden talde batzuek interesa handia dute HIESaren gaian, hala interes politikoa nola komertziala. Galdera bota du, ea HIESari buruzko udal politikaren estrategia nagusiak halako kontseilu batean zehaztu daitezkeen, tartean hainbeste interes egonda.

Hori guztia dela-eta, ez dauka argi ea parte-hartzearen kontua “panazeatzat” har daitekeen. Problematikoa iruditzen zaio: espazio oso egonkorak sortuz gero, talde txikiek ezin diote erritmoari eutsi, eta, gainera, *lobbyak* sortzeko arriskua dago. Iruditzen zaio zentzuzkoagoa litzatekeela espazio zehatzak sortzea (adibidez, diagnostiko bat egiteko): gai konkretuagoak sakon eztabaidatu, egiturak sortu ordez.

LGTBI taldeen erakundetzea

LGTBI taldeen erakundetzearen harira, Katalunian gertatzen ari diren aldaketak aztertu ditu Coll-Planasek, eragileen betekizunak asko aldatzen ari baitira. Administrazioak esku hartu du lehenago ukitzen ez zituen eta elkarteen ardura ziren tokietan. Coll-Planasen iritzian, muin-muinean beste eztabaida bat dago: ea zer estatu-mota nahi dugun, ea estatuak hartu behar duen dena, zer harreman daukan gizarte zibilarekin eta zer espazio konpartitu behar dituen harekin. Era berean, adierazi du negozio-aukera ugari sortu direla, zeren, bat-batean, LGTB diagnostikoak eta planak egin behar izan dituzte ehunka herririk, eta, hala, aholkularitzari ekin diote hainbat taldek. Edonola ere, bi tokitan jarraitzen dute: talde gisa aritzen dira parte-hartze kontseiluetan, eta aholkularitza gisa, berriz, beren interes ekonomikoak dauzkate. Horregatik, iruditzen zaio batzuetan nahastu egiten direla iritzi politikoa eta norbere interesak.

26

Fefa Vilaren arabera, beste norabide bat hartzeko sasoia da, hala aktibismoetan nola instituzio publikoei eskatzen diogun horretan: gizarte testuinguru eta bizitza ezberdinak aitortzeko aukerak eman behar dituzte, horien gainean ekiteko gai baitira. Iruditzen zaio aktibisten ardura dela instituzioei esatea ea zer egin behar duten eta zer ez. Ez diote politika guztiei eta horien zentzu guztiei ekin behar, baizik eta herritarrek adierazten dizkieten premiei eta interesei erantzun. Vilaren iritziz, elkar-teok atea irekitzen dugulako gertatzen da instituzionalizazioa. Iruditzen zaio “atea erdizka zabalik, erdizka itxita” eduki behar dugula, noiz parte hartu behar dugun jakin, eta noiz ez.

Inmaculada Mujikak kontatu duenez, Aldartek sarritan hartu du parte instituzioetan. Adibidez, Emakundek deitu izan dio, planak egitean. Iruditzen zaio arazoa ez dela formatua, baizik eta ez dituztela mintzakide gisa hartu. Emakume lesbianekin eta transekin loturiko gaiak ikusarazteko lan eskerga egin ostean, ekarpen horiek ez dira kontuan hartu. Behin baino gehiagotan gertatu da hori, eta ikusi du arazoa ez dela hainbeste kontzeptua, ezpada LGTBI pertsonen eta Aldarterekin lan egiten duten taldeek dioten horretan konfiantza edukitzea.

Elkarteen erakundetzeari tiraka, Aldarte elkar-teak Eusko Jaur-laritzaren Berdindu Zerbitzua kudeatzen du, eta Aldarteko kide Amparo Villaren esanetan, zeregin

horren ondorioz, zenbaitek talde erakundetuztat jotzen dute Aldarte. Hori dela eta, azpimarratu du hori ez dela hala, Aldarteko kideek bide luzea egin dutela aktibismoan eta hortxe jarraitzen dutela, ahal dutena egiten, “kalea eta instituzioa eskutik joan daitezen”. Esan du asko identifikatu dela Fefa Vilak lehen aipatutako kontzeptu horrekin, “ate erdizka ireki, erdizka itxiarekin”.

Sejo Carrascosak dioenez, sarritan kooptatzeko bide izan ohi da parte-hartzea, eta energia handia xahutzen da. Carrascosaren arabera, kontuz ibili behar genuke esku hartu behar genukeen errealitateei erantzuten ez dieten egiturekin (adibidez, Bilboko Pride desfilearekin, ezikusia egiten baitio instituzioen esku-hartzea gehien behar dutenen errealitateari). Gure buruari galdetu behar diogu ea zertarako eta zeinekin hartzen dugun parte, eta nora nahi dugun iritsi, eta tentuz ibili behar dugu politikariei dominak jartzea besterik bilatzen ez duen parte-hartze horrekin. Bi ahoko ezpata izan liteke, eta, hori saihestu nahi badugu, hutsune politikoak benetan zalantzan jartzeko balio duten bideak exigitu behar ditugu.

Fefa Vilaren esanetan, parte-hartzea moda-modan dago. Berak eszeptizismo handiz ikusi ditu prozesuok. Iruditzen zaio nahiaren arabera zehaztu behar duela instituzioak parte hartzeko markoa: ea parte-hartzea sustatzen duen “benetan zerbait egin nahi duelako eta ez dakielako nola, edo beste ahots batzuk bildu eta ikuspegia zabaldu nahi duelako”. Normalean, ez du azken hori nahi izaten, eta kontseiluak eta mahaiak eratzen ditu, zertarako balio duten jakin gabe. Hala, parte-hartzea instrumentalizatzen du, eta parte-hartzeak ez du balio helburu bat lortze aldera egin beharreko bidea elkarrekin zehazteko. Zergatik, zertarako eta zeinekin egin nahi du prozesua? Hori jakinarazi behar die parte hartzera deitu dituen talde edo norbanakoei, hala baizik ez baita izango benetako prozesu eztabaidatu bat. Itxuran parte-hartzaileak diren prozesuak egiten dira (adb.: Madrilgo World Pride): bertan *lobby* bat izan zen mintzakide nagusia, eta horrela justifikatu zen kontsumo homoa sustatzen zuen eta helburu eta interes ekonomiko eta politiko argiak zituen kanpaina bat. Gehiengo faltsu bat erakusten da, eta egiazko gehiengo subalternoa ezkututzen: lesbianak, transak etab. Vilak uste du ezin dela espazio guztietan modu jarraituan parte hartu eta, era berean, garrantzia duen horretan egiaz eragin. Bestalde, azpimarratu du garrantzitsua dela aktibismoa eta politika instituzionala ez nahastea.

Parte-hartzea / errepresentazioa binomioaren harira, Fefa Vilak galdetu du ea zein errepresentatzen den eta ea zeinek eskain diezaiokeen denbora asko parte-hartzeari. Iruditzen zaio emakumeek daukatela denbora gutxien horretarako, eta bizitza askoz prekarioagoa. Torontoko adibidea ekarri du: han, ordaina eskaintzen da parte hartzearen truke. Osterantzean, beti jende igualak hitz egingo du besteez. Uste du ezin garela etengabe parte hartzen ibili, eta instituzioak ezin duela etengabe aritu “parte-hartzea eszenaritzen”, indarrak xahutzen baititu.

PRAKTIKA ONAK

- Toronton ordaina eskaintzen da parte-hartzearen truke, hartara, ahalik eta jende anitzena joan dadin parte-hartze prozesuetara.

PROPOSAMENAK

- Parte-hartzea ebaluatzea eta gardenak izatea.
- Parte hartzeko markoa zehaztea eta adieraztea zergatik eta zertarako jarri den martxan prozesua.
- Gai konkretuei buruzko espazio jakinak sortu, egiturak eratu ordez.

Kultura, eraldaketa-tresna

ANALISIAK ETA HAUSNARKETAK

Gasteizko LGBTI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoak batera landu ditu aisiaren eta kulturaren esparrua, eta, horren harira, Fefa Vilari iruditzen zaio kultura eta aisia ez lirakekeela batera landu behar, eta akats hori oso ondo datorkiola kapitalismo liberalari, kulturaren eduki politiko eta eraldatzailea deuseztatzen baitu. Iruditzen zaio kulturaren helburua ez dela entretenimendua, eta, aitzitik, hezkuntzarekin lotu behar dela. Bestalde, aisiak zerikusi handiagoa du kontsumoarekin. Gainera, giza jarduera oro omen dago jakintzaz, kulturaz eta sinboloz beterik. Vilaren iritzian, kulturak industria bat osatzen du, bai, baina, horrez gainera, sinbolikoaren alorrean eragiten du nagusiki, garen horren identitatea esportatzen du: jendea, herrialdea, generoa. Era berean, genero-teknologia handia da kultura, eta, beraz, ekoitzi egiten gaitu. Ekoizpen sinboliko hori ez zaigu arrotz. Kultur praktikei esker, osterantzean, erakusteko zailak lirakekeen hainbat elementu argitu ditzakegu.

Eguneroko bizitzan kontakturik egin ez dezaketen errealitateak elkarren aurka ipintzen ditu kulturak, eta argitara ekartzen ditu hainbat gairen inguruko gezurrak eta erdi-egiak: memoriaren ekoizpena, desira, gorputzak, diskriminazioak, askatasuna, zapalkuntza... Aparatu politiko handia da kultura eta, Vilak azpimarratu duenez, instituzioek beti instrumentalizatu dute; kulturak ez du aske ekiten munduan.

Iruditzen zaio herrialdeei buruzko ikuskerak saltzen direla zinearen, kulturaren, harremanen eta abarren bitartez. Hau da, kultura ez da askea ez neutrala; dispositibo politiko handi bat da. Zentzu horretan, Vilak proposatu du kulturaren pedagogia egitea. Aisia dela esaten diguten hori guztia ikasi eta interpretatu behar dugu. Lan feminista horri esker, egoteko, gure burua errepresentatzeko eta errealitatea izendatzeko modu berriak eraiki ditzakegu. Adibidez, Prado Museoak [La mirada del otro. Escenarios para la diferencia](#) izeneko erakusketa antolatu zuen: zenbait margoren bitartez, LGTBQ ikuspegi bat eskaini zuen (ikuspegi gaya, batez ere) eta, hala, kultura barrokoaren eta neoklasikoaren inguruko begirada birdefinitu. Norbere begirada, irakurketa historikoa eta abar birpentsatzeko bideak ireki zituen.

Hona hemen beste adibide bat: [Porvenir de la revuelta](#) proiektuak hainbat praktika biltzen ditu, hain justu ere, urtetako ikerketa- eta elkarrizketa-prozesuetatik abiatu eta aktibismoan haragiztatu diren praktikak.

PRAKTIKA ONAK

- 📍 El Porvenir de la revuelta, Madrilgo Udalaren proiektua.
- 📍 La mirada del otro. Escenarios para la diferencia, Prado Museoaren proiektua.

PROPOSAMENAK

- 📍 Kulturaren esparruarekin loturiko praktikak hezkuntzarekin uztartu, ez aisiarekin.
- 📍 Egoteko, gure burua errepresentatzeko eta errealitatea izendatzeko modu berriak eraiki, kulturaren bitartez.

4

4. Tokiko lehentasunak


Amaitzeko, Sejo Carrascosak, Gasteizko Transbollomarika Sareko kidea izanik, Gasteizko LGTBI pertsonen lehentasunezko interes eta premia batzuk zehaztu ditu:


- ▶ LGTBIfobiarekin loturiko erasoen ardura hartu, familian gertatzen diren erasoena ere bai, izan ere, Carrascosaren arabera, esparru horretan ez da askorik esku hartzen, baina indarkeria handia dago (gazteen eta nerabeen aurka).
- ▶ Gizarte Politikako arreta-zerbitzuei prestakuntza eman, hasteko eta behin Larrialdi zerbitzuei eta udaltzainei.
- ▶ Kontuan hartu behar diren sektore nagusiak: ibilbide kultural ezberdina duen jendea, ijito familiak, aniztasun funtzionala duen jendea.
- ▶ Heteroaraua zalantzan jarri.
- ▶ Kaleetan gertatzen diren eraso LGTBIfoboiei erantzun.





Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Berdintasunerako Zerbitzua

 945 161 1345

 igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

 [Berdintasuna.Igualdad](https://www.facebook.com/Berdintasuna.Igualdad)

 [@VG_berdintasuna](https://twitter.com/@VG_berdintasuna)

 www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna



Eduki hau Aitortu-PartekatuBerdin (by-sa) Creative Commons lizentziapean dago. Lizentzia horrek lan horren eta bere eratorrien erabilpen komertziala egiteko eskubidea ematen du. Sortutako eduki horren banaketak jatorrizko edukiak duen lizentzia bera izan beharko du. <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/>